



## OÑATI. GAZTEEN LOKALAK

GAZTEEN LOKALEN FENOMENOAREN INGURUAN HAUSNARTZEKO ETA ELKARBIZITZA PROTOKOLOA OSATZEKO GOGOETA PROZESUA, 2014-2015

**( 2015-07-14. ONDORIOAK AURKEZTEKO AGERRALDIA )**



### BILERAREN XEHETASUNAK:

- Xede taldea: hedabideak eta herritarrak
- Data: 2015-07-14
- Lekua: Euskaltegia
- Hasiera ordua: 18:30

### AURKEZLEAK:

- Aurkezleak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Iñaki Landa (Udal arkitektoa) Jon Markel Ormazabal Gaztañaga (Aztikerreko bideratzailea)

## **1. ONGI ETORRIA , AURKEZPENA ETA PROZESUAREN KOKAPENA**

Ion Lopez, Oñatiko Udaleko Gazteria Teknikariak ongi etorria eman die "Oñatiko Gazte Lokalak. Fenomenoaren inguruan hausnartzeko eta elkarbizitza protokoloa sortzeko gogoeta prozesua, 2014-2015" partaidetzazko prozesuaren ondorioak aurkezteko antolatu den agerraldira.

Agerraldiko deialdia irekia izan da, eta partaidetzazko prozesuan parte hartu duten herritarrekin batera, hedabideak ere bertan izan dira.

Amaitu den partaidetzazko prozesu honen helburua, gazte lokalen fenomenoaren inguruan inplikaturik dauden eragileen artean lokalen egoera eta elkarbizitza hobetzeko protokoloa adostea izan da.

Halaber, Oñatin gazte lokalen egoera ezagutzea izan du helburu.

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, Aztiker Soziologia Ikerguneko teknikariak prozesuaren kokapena egin du. Hauek izan dira partaidetzazko prozesuan jarraitu diren urratsak eta urrats bakoitzean adostuta zeuden helburuak.



---

## **2. PROZESUAREN ONDORIOAK**

---

Behin partaidetzazko prozesuko urratsak azaldu ondoren, Aztikerreko teknikariak prozesuaren ondorio nagusiak aurkeztu ditu.

- Bizikidetzazko bermatzeari begirako aholkuekin gida bat osatzea. Honetan, prozesuan zehar jasotako ekarpen guztiak jasoko dira eta erabiltzaile guztiei banatuko zaie.
- Lokalen baldintzak erregulatuko duen ordenantza baten beharra.
- Lokalak, nagusiki gazteek, diru-irabazi asmorik gabe elkartzeko erabiltzen dituzten barrutiak dira.
- Kanpo gelditzen dira: familia-ospakizunak, izaera pribatu hutsekoak, ostalaritza jarduerak, gastronomia – txokoak, ...

Aurkezpenarekin jarraitu aurretik, Aztikerreko teknikariak bi azpimarra egin ditu. Batetik, adierazi du, gazteriari buruzko lanak egiten direnean, ohikoa dela administrazioaren logikatik gazteak beraiek prozesuaren ertzetan kokatzea. Oñatiko lanketaren kasuan, baina, gazteak prozesuaren erdigunean izan dira hasiera hasieratik, eta honek balioa eman dio. Bestetik, "arazo" kutsua eman ohi zaie gazteriarekin lotuta agertzen zaizkigun fenomenoek. Eta "arazoak" norma edo arauen bidez konpontzera jo ohi da. Bada Oñatin komunitateko eragile guztien arteko lanaren bidez "aholku gida" lehenetsi da, arautegia osatu bada ere. Bi elementu hauek, partaidetzazko prozesuan eragileen erosotasuna erraztu dute.

Bide batez, adierazi da prozesu honetan lehen aldiz, gazteak, lokalen jabeak eta bizilagunekin batera, gurasoak ere kokatu direla; prozesuko ikuspuntuak aberastuz.

### 3. AHOLKU GIDA

Jarraian, Ion Lopez eta Nerea Zubiak, Oñatiko Gazteria teknikaria eta Parte Hartzeko alorreko zinegotziak hurrenez hurren, prozesuaren ondorio nagusia izan den AHOLKU GIDAn jasotzen diren ideia gakoak aurkeztu dituzte.

- Lokalak gazteon aisialdirako gune autogestionatu eta pribatuak direla kontuan hartu da.
- Jarduera seguru eta duina garatzeko aholkuak planteatzen dira gidan honetan.
- Elkarbizitza da lokala eta bizilagunen arteko harreman osasuntsua garatzeko oinarritzko irizpidea.
- Oñatiko herritarren eskubide eta betebeharrak errespetatzea bilatzen du honako gidak.

<b>GARBIKETA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lokala baliabide eta sarritasun egokiaz garbituko da zikinkeriarik batu ez dadin.</li> <li>• Lehen laguntzetarako botikina edukitzea komenigarria da.</li> <li>• Lokala erraz garbitzeko eta desinfektatzeko materialaz hornituta egongo da.</li> <li>• Lokalaren hormak konponduta, garbi eta margotuta egotea komenigarria da bertan dauden gazteen osasun segurtasuna bermatzeko.</li> </ul>
<b>ELKARBIZITZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarbizitzaz gozatzeko; jabeek, auzokoeek zein gazteek arduraz jokatzeko ezinbestekoa da.</li> <li>• Bizilagunekin elkarbizitza egokia mantentzeko honako neurriak hartzea gomendatzen dizuegu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lokalaren kanpoko aldea herritar guztiena izanda, inguruak baldintza higieniko egokietan mantendu behar dira guztien artean. Era berean, jarduera beti izango da lokalaren barruan.</li> <li>- Bizilagunekin hartu-emana izatea.</li> <li>- Komunitateko bileretan parte hartzea.</li> <li>- Komunitateko kideekin harrera antolatzea, lokalaren funtzionamenduaren berri eman eta komunitateko egoeraren berri jaso.</li> <li>- Komunitateko administrariekin harremana izan elkar laguntza antolatzeko.</li> </ul> </li> </ul>
<b>ORDUTEGIAK ETA ZARATA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zarata da auzokoekin arazorik gehien sortzen duen arazoia. Hori dela eta, kontu berezia euki behar da zaratarik ez sortzeko.</li> <li>• Zarata ordutegia ezarriko da legeak esaten duena betez: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zarata-mailak ezingo du indarrean dagoen araudiak xedatzen duena gainditu (Zarataren 37/2003 legea edo legea ordeztzen duen araudia, eta garapenerako araudia: logeletan 40 dB(A) 8:00ak eta 23:00ak bitartean, eta 30 dB(A) 23:00ak eta 7:00ak bitartean.</li> <li>- Hau da, aipatutako ordutegietan etxebizitza pribatu baten bezala jokatu behar da, eta ezin da etxebizitzetarako markatutako zarata maila gainditu.</li> </ul> </li> </ul>
<b>ZARATA</b>	<p>Beraz, kontu berezia izan honako aholkuak betetzeko orduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dezibelioak ez pasatzea; telebistak, musika tresnak, bozgorailuak, e.a. ate eta leihoetatik urruntzea.</li> <li>• Abestiek, txistuek, aldarriek... eragindako zaratak ekiditea edo ebitatzea.</li> <li>• Pertsianen itxi eta zabaltze eten bakoa ekiditea.</li> <li>• Lokalaren kanpo aldean edo inguruetan jende kontzentrazioak ekiditea.</li> <li>• Lokalaren sarreran motordun ibilgailuek zarata larregi ateratzea ekiditea.</li> <li>• Pertsonak sartzean eta irtetean kontuz ibiltzea zaratarekin eta jende kontzentrazioak kanpo aldean ekiditea komenigarria da.</li> </ul>
<b>PREBENTZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zure eta zure lokal-kideen osasuna eta segurtasunagatik, ez erre lokal barruan. Askotan gainera, zigarro bat izaten baita sutearen eragilea.</li> <li>• Alkoholaren eta beste gai batzuen kontsumoari buruzko hausnarketa eta eztabaida-prozesua ireki, erabakiak denon artean ados daitezen. Hartzen diren aukerak hartzen direla, ager ezazu beti errespetuzko jarrera eta onartu, balego, kontsumorik ezaren aldeko apustua ere.</li> <li>• Adikzioei buruzko legea ezagutu edo drogen berri jakin nahi baduzu, deitu 943-037700 telefonora eta beharrezko materiala edo informazioa eskuratu ahal izango duzu konfidentzialtasun osoz.</li> <li>• Udalak ateratzen duen prebentziorako material guztia eskura izango duzu, lokalean eduki ahal izateko ( gidak, preserbatiboak, kartelak ....)</li> </ul>

<b>BERDINTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jarrera sexistak ekiditzea.</li> <li>Berdintasunaren aldeko jarrerak eta neurriak hartzea.</li> <li>Udalak egoki deritzon Informazioa, edota egiten diren kanpainen berri, banatuko du.</li> </ul>
<b>OROKORREAN:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Elkarbizitzaren inguruko arazoak ekiditea aholkatzen da, eta Oñatiko Udalak onartutako ordenantzaren gatazken aurrean jarraibidea eta zigor prozedura zehazten du.</li> <li>Beraz, holakoetara ailegatu behar aurretik, posible da Oñatiko Gazteria Zerbitzura jotzea (943 71 60 94)</li> </ul>

**G**azteen lokalen funtzionamendu egokirako gomendioak batzen dira hemen.

Lokalak gazteen aisialdirako gune autogestionatuak dira. Jarduera seguru eta duina garatzeko aholkuak planteatzen dira gida honetan. Elkarbizitza da oinarritzko irizpidea lokalak erabiltzaileek eta bizilagunek harreman osasuntsua izan dezaten. Oñatiko herritarren eskubide eta betebeharrak errespetatzea bilatzen du honako gidak.

**G**arbitzeta

Lokala baliabide eta maiztasun egokiaz garbituko da, zikinkeriarik batu ez dadin. Komenigarria da lehen laguntzarako botikina edukitzea. Erraz garbitzeko eta desinfektatzeko materialak hornituta egongo da lokala. Gazteen osasuna eta segurtasuna bermatzeko asmoz, Komenigarria da lokaleko hormak konponduta, garbi eta margotuta egotea.

**S**egurtasun arlokoak

Lokal barruan ezin da sukaldatu, ezta surik egin ere. Lokal honetan mikrouhin-labea —janaria berotzeko— eta hozkailua besterik ez da onaritzen. Lokal barruan likido edo material sukoiak (inflamableak) izatea ekidin behar da: butano bonbonak, egunkariak eta aldizkariak, behar ez diren altzariak...

**E**lkarbizitza

Elkarbizitzaz gozatzeko, ezinbestekoa da jabeek, auzokoek eta gazteek zentzuz jokatzea. Bizilagunekin elkarbizitza egokia mantentzeko honako neurriak hartzea gomendatzen dizuegu: Lokalaren kanpoko aldea herritar guztiena denez, guztien artean inguruak baldintza higieniko egokietan mantendu. Era berean, jarduera beti lokalaren barruan egin. Bizilagunekin hartu-emana izan. Komunitateko bileretan parte hartu. Komunitateko kideekin harrera antolatu, lokalaren funtzionamenduaren berri eman eta komunitateko egoeraren berri jaso. Komunitateko administratiekin harremana izan, elkar laguntza antolatzeko. Edozein informazio edo aholku behar izanez gero, gerturatu Oñatiko Gazteria teknikariarengana. Eta bizilagunekin arazorik sortuz gero ere, harremana gaiztolu aurretik, joan teknikariarengana. Aprobetsatu!

**O**rdutegiak eta zarata

Zaratak sortzen du arazorik gehien auzokoekin. Hori dela eta, kontu berezia eduki behar da zaratarik ez sortzeko.

Gogoan izan legeak zer esaten duen:

Zarata-mailak ezingo du indarrean dagoen araudiak xedatzen duena gainditu (Zarataren 31/2003 legea edo legea ordeztzen duen araudia, eta garapenerako araudia: legeletan 40 dB(A) 8:00ak eta 23:00ak bitartean, eta 30 dB(A) 23:00ak eta 7:00ak bitartean). Hau da, aipatutako ordutegietan etxebizitza pribatu batean bezala jokatu behar da, eta ezin da etxebizitzetarako markatutako zarata maila gainditu.

Beraz, kontu berezia izan honako aholkuak betetzeko orduan:

Ez gainditu dezibelioen maila; ate eta leihoetatik urrun jarri telebistak, musika tresnak, bozgorailuak, e.a. Ekidin abestiek, txistuek, aldarriek... eragindako zaratak. Ez ibili etengabe pertsonak itxi eta zabaltzen. Lokalaren kanpo aldean edo inguruetan jende kontzentrazioak ekidin. Lokalaren sarreran motordun ibilgailuek zarata larregi ateratzea ekidin. Pertsonak sartzean eta irtelean ez zaratarik egin eta kanpo aldean jendea pilatzea ekidin.



**P**rebenzioa

Zure eta zure lokal-kideen osasun eta segurtasunagatik, ez erre lokal barruan. Askotan zigorro bai izaten da sutearen eragilea.

Alkoholaren eta beste gai batzuen kontsumoari buruzko hauenarketa eta eztabaida-prozesua ireki, erabakiak denon artean ados daitezten. Hartzen diren erabakiak hartzen direla, ager ezazu beti errespetuzko jarrera eta onartu, horrela egingo balitz, kontsumorik ezaren aldeko apustua ere.

Aditzioei buruzko legea ezagutu edo drogen berri jakin nahi baduzu, deitu 943-037100 telefonora. Beharrezko materiala edo informazioa eskuratu ahal izango duzu konfidentzialtasun osoz.

Udalak ateratzen duen prebenzioarako material guztia eskura izango duzu, lokalean eduki ahal izateko (gidak, preserbatiboak, kartelak...) Berdintasuna

Udalak egoki deritzon informazioa banatu eta egiten diren kanpainen berri emango dizu.

Elkarbizitzaren inguruko arazoak ekiditea aholkatzen da. Oñatiko Udalak onartutako ordenantzaren zehaztuta dago gatazken aurrean jarraibidea eta zigor prozedura zein izango den.

Beraz, horrelakoetara ailegatu aurretik, jo ezazue Oñatiko Gazteria Zerbitzura (943 71 60 94).





# OÑATIKO GAZTE LOKALAK FUNZIONAMENDU EGOKIRAKO GOMENDIOAK

Lokaleko erabiltzaileen eta bizilagunen artean harreman osasuntsua garatzeko, elkarbizitza da oinarritzko irizpidea:  
**Errespetatu eta errespetatua izango zara.**

Zaratak sortzen du auzokoekin arazorik gehien. Gogoratu zarata ordutegi bat zehaztu dela eta errespetatu egin behar dela. Batez ere kontu izan telebista edo musika-tresnak erabiltzean, sartu-irtenetan eta kanpoan elkartzean, eta saihestu abestiak, txistuak...

Lokala eta bere inguruak baliabide eta maiztasun egokiaz garbitu, zikinkeriarik batu ez dadin.

Lokal barruan ez sukaldatu eta ez surik egin. Lokalean ez gorde erraz su har dezakeen likidorik edo materialik: butano bonbonak, egunkariak eta aldizkariak, behar ez diren altzariak...

Kontuz alkohola eta beste gai batzuk kontsumitzean, gogoratu adingabekoei debekatuta dutela.

Gogoratu ezin dela debekatutako sustantziarik gorde edo saldu lokalean.

Ekidin elkarbizitza-arazoak. Gatazkarik badago, Oñatiko Udalak onartutako ordenantzan zehazten da zein izango den jarraibidea eta zigor prozedura. Horrelakoetara iritsi aurretik, jo ezazue Oñatiko Gazteria Zerbitzura (943 71 60 94).

**Aprobetxatu aukera!**



**Oñatiko Udala**



---

## 4. GAZTE LOKALEN JARDUERA ARAUTZEKO ORDENANTZA

---

Ordenantzari dagokionean, arautegia **hiru helburu** nagusiren aginean eratu da:

- Herritarren arteko hurbilketa eta elkarrizketa
- Gizarte fenomenoaren garrantzia onartu
- Bizikidetzaren irizpideen garrantzia landu

**Ildoak**, berriz, bi izan dira:

- Erabilera-aldaketa bidezko lizentzia
- Gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzak

Lokalen **ezaugarriak eta baldintzak**:

- Lokalen arteko distantzia:
  - 20 metro, kalearen esku berean dauden kasuan.
  - 10 metro, kalearen eskumako eta ezkerretako fatxadetan daudenean.
- Sarrera egokitua. Ateak 90 zm.-tako zabalera
- Gutxienez 2,80 altuera behe-solairuetan. 1. solairuan 2,50
- Gutxieneko neurria 20 m<sup>2</sup> izango da
- Edukiera: pertsona bat 2 m<sup>2</sup> ko
- Su-itxalgailuak beharrezkoak
- Sukalderik ez
- Komun aireztatuta: konketa eta komuna
- Instalazio elektrikoaren egiaztagiri ofiziala
- Argiztapen naturala edota artifiziala
- Ur-hartune bat derrigorrezkoa
- Makina guztiak ainguratuta
- Soinu muga gainditzen badute intsonorizazio-proiektua

Lokala erabiltzen hasteko **aurkeztuko beharreak**:

- Jarduerarako aurretiazko komunikazioa (Lokalaren arduradun eta jardueraren titularren datuak; adin txikikoekin tutoreak)
- Memoria edo txosten teknikoa
- Erantzunkizun-zibileko aseguruia
- Kontratua
- Baldintzen egiaztatzea (kokapena, titularrak, aforoa, baldintzak)

**Bizikidetzaren mahaia.** Prozesuan zehar irten den ondorioetako bat izan da, komunitatean suertatu daitezkeen gatazka edo arazoaren aurrean, komunitateko parte guztien arteko "bizikidetzaren mahaia" bat osatzea, aipatu arazo horiei erantzuteko.

- Elkarbizitza arazoaren aurrean bitartekaritza protokoloa
  - Egoera errepikatzean bizilagunek udaletxean kexa idatzia erregistratu
  - Erabiltzaile eta jabeek idatziz jaso
  - Bigarren kexarekin Bizikidetzaren Mahaia
  - Zeregina: arazoak aztertu eta konponbideak bilatu
  - Osaera: Erabiltzaile, bizilagun, jabea, Gazteria teknikaria, partaidetza teknikaria
- Diziiplina araubidea.

---

## **5. HURRENGO URRATSAK ETA AGURRA**

---

Aholku Gida eta Arautegia aurkeztuta, Nerea Zubiak aurrera begira prozedurak jarraitu beharreko urratsak azaldu ditu.

- Urtebeteko epea ezartzen da Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aisialdirako lokalen erabilera erregularizatzeko lokal zaharrei.
- Udalak jabe eta erabiltzaile guztiei Ordenantza jakinaraziko die.
- Hirigintzak eskaerak aztertu eta baimenak emango ditu.
- Hortik lokalen erregistroa sortuko du.
- Lokalen baldintzen inguruko informazioa Hirigintza sailean eskaini.
- Udal erregistroan eta Gazte Informazio Bulegoan (gazteentzat) informazioa eta aholkuak.

Laburrean:

- UDAL ONARPENA
- KOMUNIKAZIOA
- PERTSONEI JAKINARAZPENA
- ERREGISTROAREN ZABALPENA

Amaitzeko, agerraldian parte hartu duten lagunek, hedabide eta herritarren galderak eta zalantzak erantzun dituzte. Galderak bereziki, lokalen jabeen aldetik aurkeztu dira.

**Agerraldia amaitutzat emanda, Oñatin 2015eko uztailaren 14an**